



Atucha, Lemoa



Atuchagoicoa, Dima



Atuchola, Lemoa




Kaltia
edizio lanak



Isaak Atutxa-Kaudalategi Etxebarria

Atucha: behinolako etxe-abizen baten arrastoen bidetik

1



Deustuko Unibertsitatean Euskal Filologia ikasketak burutu zituen Isaak Atutxa-Kaudalategi Arratian jaioa dugu, Arantzazun.

Joanes Etxeberri apaiz ziburutarraren obra hartu eta, haren azterketa bitarte, doktore-tesia lanetan ihardun zuen hainbat urtetan zehar, Patxi Altuna irakaslearekin lehenik eta Blanka Urgelekin geroago. Lan teorikoa hiru artikulutan argitaratua du.

Laister atzipetu zuten, ordea, jaioterriko historiek; lausengu horien fruitu dira:

Arantzazu, zaharra orainaldi. 1996ko argazki eta istorio liburua.

Arantzazu: nor/zer... non. Historia baterako materialak (I). Albitzu-Argiñao-Zalbide. 2017.

Arantzazu: nor/zer... non. Historia baterako materialak (II). Udalerría. 2023, Arantzazuko Udalaren eskutik.

Eskuartean duzun argitalpen hau *Atucha* etxe eta abizenaren historiari buruzko lehen hurbilketa duzu.



Atucha

behinolako etxe-abizen baten arrastoen bidetik

Isaak Atutxa-Kaudalategi Etxebarria

www.atutxa.eus

Atucha

Behinolako etxe-abizen baten arrastoen bidetik

I

Heraldika, Atucha, Atuchola...

Isaak Atutxa-Kaudalategi Etxebarria



2024

© Isaak Atutxa-Kaudalategi Etxebarria

© Kalti edizio lanak

652726906 – isaak@atutxa.eus

ISBN 978-84-09-66801-4

LG BI 1547-2024

Copyright-aren jabeek baimena ematen dute nahi duenak eta nahi duen formatoan liburu honen edukia zabal dezan, eta iturria aipatzea eskertuko lukete

Miren eta Gorkari

Aitzinsolasa

Arantzazuko historiari buruzko liburuetakoa bat argitaratu berri, aspaldi telebistan aurkeztutako Juan Mari Atutxari buruzko *Los ocho apellidos vascos* emanaldia ikusteko aukera izan genuen. Bertan, Dimako Obagoiena auzoko *Iturriotz* baserriko Jose Luis Atutxak adierazten zuen Atutxatar guztiak bertatik atereak-sortuak zirela. Ez dugu atsekabetu ginenik esango, baina emanaldi hartakoek aldameneko *Kaudalategi* baserria ahanzten zuten, bertan ere mendeetan zehar Atutxatarrek kokatuak.

Harrak jota, bada, behinolako etxe eta abizen honen arrastoen bidean murgildu ginen.

Bilatzaile desberdinei, *Atucha*, *Atutxa*, *Dima* eta horrelakoak bidali eta hainbat eta hainbat emaitza itzuli ondoren, Dimako *Atuchagoicoa-Atuchagoienengoa* eta *Atuchabeco*a baserri-etxeetan hasten zen atutxatarrei buruzko historia bat erakiteko gai izan ginen, modu batera edo bestera plazaratzeko prest zegoena.

Haatik, XVIII. mendean abiatzen zen *Atucha* abizen eta habia baten historia eskasegia litekeela pentsatzen genuen. Izan ere, lortu genituen lehenetariko datuak 1704 fogeretakoak eta hortik onantzakoak ziren. Ondorioz, haratago joateak merezi zukeela eta bilaketa berrietan murgildu ginen.

Bilaketak Lurralde Historiko osora zabaldu genituen; horren ondorioz, XVII. mendearen hasierara heldu ginen. Valladolidgo Kantzelaritzan, Mari Ibáñez de Usunsolo eta Diego de Elejabeitia de Ibarren arteko auziaren seiehun eta larogeita bi orrialde material eskuratu eta Pedro Ortiz de Atucha baten arrastoa aurkitu genuen; arrasto zurtza, edozein modutan ere, oso eskasak baitziren ahaideenak.

Fuentes documentales medievales del País Vasco bilduman, bestalde, Bilbori gagozkiola, *Atucha* bat baino gehiago aurkitu genuen, XVII. mendeaz haratagokoak.

Bagenituen, azkenik, bi iturri helezin ikerketaren zati handi batean. Sabino Aguirre Gandarias historiagilea hartu dute iturri Erdi Aroko merkataritza kontuez ihardun direnek. Artikulu eta liburuetan, *Atuchola* bostehun burdin kintaletan saldua izan zela irakurri genuen. Aguirre Gandariasen iturriaren bilaketak ere Valladolidgo Kantzelaritzara eraman genuen. Materialak, haatik, oso zaharkituak zirela esan ziguten, erabilgaitzak. Ekina baragarria dela dio gure inguruko esaera batek, eta, ekin eta ekin, materialak zaharberri zituzten lortu genuen. 1493-1495 urte bitartean, Teresa de Atuchola eta Juan Ortiz de Usunsolok izan zituzten auzi desberdinei zegozkien materialok¹. Eta, bostehun burdin kintal horiez gain, hainbat pertsona, oinetxe eta kontu erreskatatzeko gai izan gara. Horrela, bada, *Atuchola* oinetxearen XVI.

¹ 503 orrialde dira Artxibo honetan.

mendera arteko historiatxo bat josteko gai izan ginen; baita, neurri eskasago batean, *Atucharena* ere.

XVI. mende ia osoa basamortu zen, aldiz; XVI. mendeko haiek eta XVII.eko Pedro Ortiz de Atucha eta Mari Ibáñez de Usunsolo emaztea lot litzaketen materialak falta zitzaizkigun. Zorte-kolpe batek, ordea, beraien arrastoa jarri gintuen. Izan ere, bilaketetako batean Usunsolotarrak eta *Aruchola*² oinetxeari buruzko auzi batekin egin genuen topo, Valladolidgo Kantzularitzan oraingoan ere. Kontua da Juan Ortiz, Sancho Ortiz eta Mari Ibáñez de Usunsolok bere ama izan zenaren³ ondasunak euren zegozkiela esan eta aitaren ondasunen aurka zihardutenei auzia jarri ziotela. Aipatu dugun XVI. mendeko hutsune hura betetzeko baliatu gara auzi honetaz.

Honela, XV-XVI. mendeetako *Atuchola* oinetxea ezagutzeko parada izan dugu; paradoxikoa badirudi ere, Atuchatarren eskuetatik Usunsolotarrenetara eta hauenetatik, berriro ere, Atuchatarrenetara pasatzen ikusi dugu; izan ere, Mari Ibáñez de Usunsolo *Atuchola* oinetxea erosiko duen Pedro Ortiz de Atucharekin ezkonduko baita.

Ezezagunago zitzaigun, ordea, *Atucha* oinetxea. Kortazartarren historia idatzian, *Marqueses de Rocaverde* artxiboa aipatzen da; are, Atuchatarren jatorriari buruz ere mintzo dira Gortazartarrak. Artxibo hura bilatzen hasi eta, Euskadiko Artxi Historikoari emana zela; kontsulta egin genuen garaian, digitalizatzen ari zirela eta lanak amaitzeko bi urte beharko zituztela erantzun ziguten. Haiek ere irantsi zituen denborak eta, finean, eskuragarri dira nahi duenarentzat.

Arriola-Urretxa artxiboetan aurkitu ditugu *Atucha* oinetxea eta bertako Atuchak ezagutzekoak. Oinetxea, *Atucha* desberdinen eskuetatik igaro ondoren, Pedro Ortiz de Atuchak erositako izango da; honen eskuetan eta emaztearenean bilduko dira, bada, *Atucha* eta *Atuchola* oinetxeak. Eta horrela jarraitu ere, batean, hainbat mendetan zehar.

Dakargun, bukatzeko, gure lanen babesle anonimoen aipamena; euren laguntzari esker heltzen dira, irakurle, zure eskuetara. Eta, eskuetan dituzula, idazten dugunaren berri izan dezazun da istorioak kontatzen jarraitzeko elikagaia.

² *Atucha*, *Atuchola* etabarrak bilatzen genituen... Halako batean, *Usunsolo*, *Usansolo* jarri eta gaizki transkribatutako *Aruchola* honekin egin genuen topo.

³ Catalina Ibáñez de Ocerin, Sancho Ortiz de Usunsolo Atucharekin ezkondua.

Aurkigarria

0.-Heraldika	1
1.-Kokapen zehatzik gabeko Atuchak	15
2.-Bilbao	25
2.1.-Elizetako hilobiak	27
2.2.-Zerga eta fogera-auzoteria kontuak	29
2.3.-Probestu-tenienteak. Sancho Ortiz de Atucha	31
2.4.-Eliz Artxiiboak	35
2.5.-Gaspar de Atucha	35
2.6.-Pedro Ortiz de Atucha	37
2.7.-Martín de Atucha	40
3.- <i>Atuchola</i>	43
3.1.-Pedro Ortiz de Atucha eta Teresa de Isasi	45
3.2.- <i>Atuchola</i> enkantera (1452-1483)	51
3.3.-Usunsolotarrak <i>Atucholara</i>	72
3.4.-Fortuño Abad de Atucha	81
3.5.-Pedro Ortiz de Atuchola eta Toda de Vildosolaren alabak	93
3.6.-Juan Ortiz de Usunsolo eta Teresa Sánchez de Atucha	103
3.7.-Sancho Ortiz de Usunsolo Atucha	105
3.8.-Usunsolotarren genealogia laburra	152
4.- <i>Atucha</i>	153
4.1.-Jatorriaz	157
4.2.-María Sáez/Ibáñez de Atucha	174
4.3.-Iñigo de Atucha	178
4.4.-Joan de Atucha Elexabeitia	180
4.5.-Hortuño de Atucha	188
5.-Bediatik Arratiako Merindadera?	197
5.1.-Agiri zaharrak	199
5.2.-Martín de Atucha	204
Gehigarriak eta bibliografia	223

Argazki eta marrazkien aurkigarría

Portada: *Donamariako dorrea*. Gorka Atutxaren marrazkia.

Heraldika:

1.-orrialdea: *Atuchatarren armarria*. 1682ko marrazkia. *Archivo Histórico Nacional. Órdenes Militares. Caballeros. Calatrava, 1443*.

3-6.-orrialdeak: *Atuchatarren armarri desberdinak*. Roberto Bartolomé Pesqueraren marrazkiak.

7.-orrialdea: *Caudalategui*, Oba. Egilearen artxiboa.

9-11.-orrialdeak: *Bernagoitia*, Euban. Egilearen artxiboa.

14.-orrialdea: *Atucha-Caudalategui* sendia. Egilearen artxiboa.

Bilbao:

25.-orrialdea: *Bilbao. De civitates orbis terrarum*. 1573. Frans Hogenberg.

Atuchola:

43.-orrialdea: *Atuchola (Lemoa)*. Miren Bernaolaren marrazkia.

45.-orrialdea: *Atuchola (Atuchola)*. Egilearen artxiboa.

83.-orrialdea: *La batalla de Elorrio*. elorrrioturismo.eus/es/que-hacer-en-elorrio/ruta-historica-por-elorrio/

88.-orrialdea: *Lemona, camino de la iglesia*. Jon Urrutxurtu.

124.-orrialdea: *Alcibar palazioa*. Zeanuri. Felipe Manterola.

136.-orrialdea: *Lemoa*, eliza inguruak. Indalecio Ojanguren.

141.-orrialdea: *Lemoa. Elizatik Atuchara*. Egilearen marrazkia.

151.-orrialdea: *Atucha-Atuchola*. Google Maps.

Atucha:

153.-orrialdea: *Atucha (Lemoa)*. Miren Bernaolaren marrazkia.

156.-orrialdea: *Atucha (Lemoa)*. Egilearen artxiboa.

175.-orrialdea: *Elexabeitiko dorrea*, Elexabeitian. Miren Bernaolaren marrazkia.

179.-orrialdea: *Landaeta (Lemoa)*. Moli Rementeria.

182.-orrialdea: *Atucha, árbol genealógico*. *EAH-AU_arriola_073_08*.

191.-orrialdea: *Arantzazu*. Indalecio Ojanguren.

Bediatik Arratiako Merindadera?:

197.-orrialdea: *Atuchagoicoa (Atutxa auzunea, Dima)*. Miren Bernaolaren marrazkia.

220.-orrialdea: *Mapa topográfico de los términos de las anteiglesias de Santa María de Yurre y San Pedro de Dima (Vizcaya)*. Archivo de la Real Chancillería de Valladolid. ES.47186.ARCHV//PLANOS Y DIBUJOS,DESGLOSADOS,35.